

KONPOSIZIO GARAIKIDEKO IKASTAROA

MICHAEL JARRELLekin

Errenteria (GIPUZKOA), 2016ko irailaren 21, 22 eta 23a

Antolatzaileak:

fundación  fundazioa

Musikagileak

Laguntzaileak:



HARTZAILEAK

Konposizio garaikideko teknika, instrumentu-idazkera eta ahots-idazkeraz interesatutako musikagile, sortzaile eta musikari oro.

HELBURU PEDAGOGIKOAK

Orkestraren trataeraren azterketa, bakarlaridun lanetan bereziki, edota ahots-idazkeraren teknikak, bere problematikak eta auzi estetikoak.

EGITARUA

- Michael Jarrell-en hitzaurre biografiko eta profesionala.
- Orkestra-idazkeraren azterketa.
- Orkestraren trataera barkarlaridun lanetan.
- Ahots-idazkeraren teknikak eta auzi estetikoak.
- "Cassandre" monodramaren azterketa.
- Konpositore gonbidatuaren musikalanen aditze eta analisia
- Bertaratutako musikagileen lanen aditzea.

IRAKASLEA

Michael Jarrell

Genevan jaioa, 1958ko urriaren 8an, Michael Jarrellek konposizioa ikasi zuen Genevako Kontserbatorioan Eric Gaudibertekin, eta baita Estatu Batuetako (Tanglewood, 1979) hainbat ikastarotan ere. Friburgoko Musika-Unibertsitatean osotu zuen bere formakuntza Klaus Huberrekin.

1982az geroztik, bere lanek hainbat sari jaso dituzte: Acanthes Saria 1983an, Bonn hiriko Beethoven Saria (1986), Marescotti Saria (1986), Gaudeamus (1988), Henriette Renié (1988) eta Siemens-Förderungspreis (1990). 1986 eta 1988 bitartean, Pariseko Arteen Hirian egoitza izan zen eta IRCAM-en musika elektroakustikoko ikastaroan hartu zuen parte. 1989-90 urteetan, Erromako Villa Médici-n konpositore egoiliarra izan zen. Viena hiriko Musika Saria jaso du (2010).

1991ko urritik 1993ko ekainera bitartean, Lyoneko Orkestrarekin konpositore egoiliarra izan zen. 1993an, konposizio irakasle gisa hasi zen Vienako Unibertsitatean. 1996an, Luzernako Festibalean konpositore egoiliarra izan zen eta, ondoren, Helsinkiko Musica Nova Festibalak goraipatua izan zen, 2000. urtean festibala eskaini zitzaizolarik. 2001ean, Salzburgoko Festibalak *Abschied* izenburupeko piano eta orkestrarako kontzertuaren enkargua egin zion. Urte berean, "Chevalier des arts et des lettres" izendatua izan zen. 2004ean, Genevako Kontserbatorioko konposizio irakasle izendatua izan zen.

2010ean, Pierre Boulezen 85. urteurrena zela medio, Michael Jarrellek *La Chambre aux échos* konposatu zuen, eta Intercontemporain Ensembleari eskaini zion, Susanna Mälkkik zuzendu zuen. 2012an, bere *Emergences (Nachlese VI)* biolontxelorako kontzertua, Jean-Guihen Queyrasentzat konposatua, Salt Lake City eta Lyonon estreinatua izan zen. Halaber, soprano eta ensemblerako *Nachlese Vb - Liederzyklus* Genevan eta New Yorken estreinatua izan zen.

DATAK, ORDUTEGIA, IRAUPENA eta LEKUA

DATA:	2016ko irailaren 21, 22 eta 23
IRAUPENA:	10 ordu (6 ordu kolektiboak / 4 ordu banakoak)
ORDUTEGIA:	Saio Kolektiboak: Irailak 21, 16,00etatik 19,00etara. Irailak 22, 16,00etatik 19,00etara. Banako Saioak: Irailak 23, 09,00etatik 13,00etara. (40 minutuko 6 saio)
LEKUA:	MUSIKENE; EUSKAL HERRIKO GOI-MAILAKO MUSIKA IKASTEGIA Europa Plaza 20018 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN (Gipuzkoa)

MATRIKULAK (BEZa barne):

AKTIBO*

(saio kolektiboak eta banako topaketa)

	NUEVO ALUMNO	SOCI@SGAE / SOCIO MUSIKAGILEAK/ **ALUMNO MUSIKENE O ** PARADO
2016KO IRAILAREN 5ERA ARTE	50 €	40 €
2016KO IRAILAREN 6TIK AURRERA	60 €	50 €

ENTZULE

(saio kolektiboak)

	NUEVO ALUMNO	SOCI@SGAE / SOCIO MUSIKAGILEAK/ **ALUMNO MUSIKENE O ** PARADO
2016KO IRAILAREN 5ERA ARTE	30 €	20 €
2016KO IRAILAREN 6TIK AURRERA	40 €	30 €

* **6 plaza.** Ikasle aktibo matrikula burutu eta, gerora, banako topaketetarako hautatuak ez diren kasuetan, ordaindutako matrikularen zenbatekoari dagokion zati proportzionala bueltatuko da.

** Baldintza hori dagokion agiriaren bidez frogatu beharko da.

MATRIKULA EGITEKO AZKEN EGUNA: IRAILAK 14, ASTEAZKENA (LEKU MUGATUAK)

*Izen-emate ordena errespetatuko da. Ikastaroa burutzeko, ezinbestekoa izango da gutxieneko parte-hartze maila.

+ INFO

Tel.: 669 789 130 / 94443 86 66

e-mail: info@musikagileak.com / formacion@fundacionsgae.org

Webs: www.fundacionsgae.org www.musikagileak.com

NOTAS:

*Ikastaroa bukatzean, ikasleak diploma jasoko du (beharrezko gutxieneko bertaratzea: orduen %80a).

** SGAE Fundazioak programaren edozein aspektu aldatzeko eskubidea erreserbatzen du, baldintzek hala behar badute.